

## **Sorgin eguna. Piezen letrak**

### **Ipuinak**

#### **Animaliek solas egin**

Erraten dute aspaldi-aspaldian animaliek eta belarrak solas egiten zutela, baina goroldioak ez, bera zen hitz egiten ez zekien bakarra. Animaliak mendira belarra jatera joaten zirenean, belarrak erraten zien, behatzarekin goroldioa seinalatuz: “Ez ni jan, ez. Hori jan ezazu, goxoagoa da eta!”.

Halako batean, goroldioa beti isilik eta zapaldua egoteaz aspertu zenean, erabaki zuen haritz gainera igo eta handik oihukatzea:

“Ni naiz nor nire buru!”. Horrezkero, guztiek goroldioa errespetatu zuten.

#### **Berako erraldoia**

Bera inguruan erraldoi bat bizi omen zen eta erraldoi horrek bertako fabrikako presan Bidasoko ura edaten omen zuen, hanka bat Larrun mendiaren gainean eta bertzea Labeagan paratuta.

Eta badakizu zer egiten zuen beratarrekin haserretzen zenean? Ura hartu eta botatzen omen zuen dena. Brrrraaa!

### **Formulak**

- Bakeak egiteko: bake ttitt
- Min hartzean: senda, senda mina, astoaren putx-urrina, joan da, joan da mina, ako mina!
- Jolasean libratzeko: xalmo ni
- Zerbait berria lehen aldiz janztean: zimikoberri

### **Zotz egiteko**

- Kañi-kañi, bete zillarra, papirona, bete zillarra, beringon, arriketan, baionetan, iterragon, gona lagon, ziripiton, erregaren gon, irrixkitin, lau, kri, kon!

### **Kanta**

#### **Sorginen kanta**

Neronek ikusi dut neure begiekin,  
Azkarregiko maldan zazpi mila sorgin,  
“Aufa!” egiten zuten denek elkarrekin,  
batek galde egin zuen non ote zen Fermin.

Larion-larionfa, Migel Antoni,  
larion larionfa, zanpantzar hori!

Sorgin errege omen da,  
Akelarren Fermin,  
“Aufa!” eginez gero, “lufa!”  
Denak elkarrekin.

Larion-larionfa, Migel Antoni,  
larion-larionfa, Zugarramurdi.

Sorgin errege omen da  
Akelarren jarri, “Aufa!” eginez gero, “lufa!”  
Denak ongi bizi!

### **Aho korapiloa**

- Akerrak adarrak okerrak ditu, okerrak adarrak akerrak ditu, adarrak okerrak akerrak ditu.

### **Jolasak**

- Bat, bi, hiru, sorgin zataka!
- Sorgin hizkera

### **Erran zaharrak**

- Munduari bi buelta emanda ere, ez nuke sekula zu bezalakorik aurkituko!
- Sortzetik du azeriak maltzurkeria